



OLASO
DORREA
FUNDAZIOA

2021eko

EKIMENAREN MEMORIA

2021ko jardun memoria

1. Olaso Dorrea etxearen mantenua

Olaso Dorreak bost mende baino gehiago dituen eraikina izatek mantenu eta berriztapen lanetan esfortzu eta inbertsio garrantzitsuak eskatzen ditu. Beste lan batzuen artean, mantenu hori egiteko Fundazioak pertsona bat du kontratupean. Hona hemen ohiko garbiketak eta mantenuzko lanez gain 2021an egindakoen laburpena.

1.1 Lorategia

Olaso Dorrearen kanpoaldean dagoen lorategiko mantenu lanekin jarraitu dugu. Bergarako Udalarekin sinatutako hitzarmen baten ondorioz, lorategi honek erabilera publikoa du egunean zehar. Mantenu lan handiak Udaleko lorezaintza zerbitzuak egiten dituen arren, egunerokoan egin beharreko mantenu eta garbiketa Olaso Dorrea Fundazioak kontratupean duen langileak egiten du, hala nola hostoak kendu eta harri txintxarrak txukundu (astean bi aldiz), ureztatu, inausketa txikiak egin, huntzak atondu...



1.2 Teilatua

Urtean behin izaten den lez, aurten ere mantenuko lanak bete dira. Teilatua hodiak garbitu, belarrak eta goroldioa kendu, teilak eta pesebreak aztertu etab.

1.3 Kanpo eta barruko garbiketa lana orokorrak

Jardina, teilatua, atariak, barruko gelak eta saloiak, panteoia etab.



Hona hemen panteoia.

1.4 Ezarritako protokoloari jarraituz urteroko ikuskapenen fitxak

2012. urtean amaitu zen eraikinaren zaharberritzearen ondorioetako bat eraikinaren mantenu sistematikoaren beharra izan zen. Izan ere mota honetako eraikin askok (publiko zein pribatuak) eraikinaren zati/leku garrantzitsuetan mantenu falta izaten dute, eta gabezia horren ondorioz iraganean jasandako kalteak errepikatu egiten dira. Garrantzitsua da teilatuko teilak egoera onean eta ondo kokatuta egotea, euri urak bideratzen dituzten kanaloak eta hobiak osorik eta garbi egotea, instalakuntza elektrikoa zein estolderia instalakuntza egoera onean mantentzea etab. Gai hauen garrantziaz jabetuta, Olaso Dorrean protokolo bat ezarri dugu, eta ondorioz urtero berrikusten dira .

Ikuskapen bakoitzeko fitxa bat jaso eta mantenu liburu batean gordetzen da.

2 . Fundazioaren ekintzak

2.1 TELESFORO MONZONEN HERIOTZAREN 40 URTEURRENA



Aurten T.Monzonen heriotzaren 40. urteurrena dela Fundazioak hainbat ekimen burutu ditu.

2.1.1. Web orria osatu eta martxan ipini



Olaso Dorrea Fundazioaren web orria jarri da martxan, bertan Olaso Dorrearen historia, T. Monzonen biografia bai eta bibliografia jaso dira. Honetaz gain Olaso Dorreak eskaintzen dituen baliabideak ere jakinarazi dira bai eta Fundazioaren bestelako nondik norakoak.

OLASO DORREA FUNDAZIOA

Hasiera Nor Gara Olaso Dorrea Telesforo Monzon Dohaintzak Kontaktua

Helburua

Helburua

Euskara eta, oro har, euskal kultura, ikertzea, zabaltea eta hauek sustatzeko beste edozein jarduera burutzea.

Sustapen-xede nagusi horri kalterik egin gabe, kultura-establezimenduetan eutsi ahal izango die, xede horren osagarri gisa.

Bere helburuak betetzeko, fundazioak egokitzat jotzen dituen ekintza guztiak egin ahal izango ditu, eta fundazioaren xedeari zerkusia duten esperientziak, ikerketak edo gauzatzeko dakartzaten guneak, zerbitzuak edo jarduerak sortu edo sortzen lagundu ahal izango du.

2.1.2 Twitter kontua abiatu

Twitter kontua zabaldu da. Bertan ODFren ekimenak jasotzen dira. Heriotzaren 40 urteurrenean Monzon bizitzaren gertaeren berri ere jaso da, bai eta euskal efemeride garrantzitsuak bildu dira ere. Egun 420 jarraitzaile inguru ditu kontuak.



2.1.3. #4ourte40aste40esaldi

Web orrian eta twitter bidez, Monzonen 40 esaldi esanguratsu bildu dira urtean zehar.



ARROTZ-ITXURA
Asmoz, oituraz, iritziz,
izkeraz, **IZATEZ**,
egunetik egunera geure
eñari eñdal eta arrotz
itxure geixeago ematen
ari ez ote geran belduñ
naiz. Ernai gaitetz!
Euskal gogoia
abertzaleen eskuetan
eten zala geroak esan ez
dezan...

Alderdi, Ikasle Euzkotafen batzarra.



ELKARREKIN
“Beti esan ohi dut Guk
abertzaleen artean
elkarrekin konpondu
behar dugula, lehenik. “

Enbata, 1977




KONSTITUZIOA
Nik ezin dut traidore
izatera behartzen nauen
konstituzio bat onartu.

Punto y Hora, 1979

2.1.4 Txalaparta argitaletxearekin ODFk zuen hitzarmena berrartu da.

Txalapatarekin ODFk zuen hitzarmena berriro abiatu dugu. Aurten Monzon heriotzaren 40 urteurrenean 2Monzon, Herri baten Oihua”, berrargitaratu dugu.



<https://www.naiz.eus/eu/info/noticia/20210312/monzonek-obratu-zituenbalioak-egungo-eta-geroaren-oinarrietan>

2.1.5. iritzi artikulua bere heriotzaren 40 urteurrenean.


Monzonen heriotzaren urteurrenean iritzi artikulua argitaratu du Fundazioak.

<https://www.berria.eus/paperekoa/1876/016/001/2021-03-10/telesforo-monzonen-biziaeta-balioak-ospatzeko-eguna.htm>

<https://www.naiz.eus/eu/iritzia/articulos/monzonen-bizia-eta-balioak-ospatzeko-eguna>

<https://www.noticiasdegipuzkoa.eus/opinion/tribuna-abierta/2021/03/09/monzonen-biziaeta-baloreak-ospatzeko/1095219.html>

2.1.6 MONZON-GANUZA SARIA, EUSKAL UTOPIKOEI SARIA jarri da abian.



Bergarako udalarekin sinaturiko hitzarmenaren baitan, Monzon Ganuzasaria jarri da martxan 2021 urtean. Euskal Herriaren alde oso eremu desberdinetatik beraien bizi osoan zehar lan egin duten herritarrak omentzea du helburu sariak.

Monzon-Ganuzasariaren bidez Euskal Herriari, bere kultura, hizkuntza, historia eta etorkizunari bizitza osoko lana eskaini dioten herritarrak omendu nahi dira.

Saria erabakitzeko unean, kontuan izango dira Telesforo Monzonen eta Josefa Ganuzaren baloreak, hala nola herri honekiko maitasuna, euskarari eta kulturari emaniko lehentasuna, Nafarroak euskal historian izan duen garrantzia, edo eta batasunaren balioa.

Era berean, euskal kulturgileak sustatzeko saria ere bada:

Saria sinbolikoa izango da, eta Telesforo Monzon zein Josefa Ganuzaren balioak ordezkaturiko dituen obra artistiko bat izango da. Saria euskal artista berriak sustatzeko erabiliko da. Urtero artista berri bati eskainiko zaio eta horrela saria bera euskal artista berrien sustapenerako eta euskal kulturgintza hauspotzeko ekimen bihurtuko delarik. Modu horretan belaunaldien arteko zubi lana eraiki nahi dugu.

Oinarriak:

1. Monzon-Ganuzasariaren bidez Euskal Herriari, bere kultura, hizkuntza, historia eta etorkizunari bizitza osoko lana eskaini dioten herritarrak omenduko dira.

2. Saria erabakitzeko unean, kontuan izango dira Telesforo Monzonen eta Josefa Ganuzaren baloreak, hala nola herri honekiko maitasuna, euskarari eta kulturari emaniko lehenasuna, Nafarroaren garrantzia euskal historian edo eta batasunaren balioa.
2. Saria urtero banatuko da, Teleforo Monzonen heriotzaren datan (Martxoak 9) edo inguruan. Sariduna nor den beranduenera bi aste lehenago emango da jakitera.
3. Saria erabakitzeko BATZORDE bat izendatuko da, Olaso Dorrea Fundazioko Patronatuak izendatutako hiru pertsona eta Bergarako Udalak izendatutako bi pertsonez osatua.
4. Batzordea lau urtean behin berrituko da. Batzordekideek errepika dezakete mandatua.
5. Batzordeak, urtero, urte horretako urtarrilaren 31erako erabakia izango du saria nori eman, batzordeko edozein kideek aurkezturiko izenen artean. Erabakitzeko unean lehen artikuluan aipatutako irizpideak izango dira kontuan.
6. Saria sinbolikoa izango da, eta Telesforo Monzonen eta Josefa Ganuzaren balioak ordezkatzeko dituen obra artistiko bat izango da. Saria euskal artista berriak sustatzeko erabiliko da.
7. Urtero artista berri bati eskainiko zaio saria diseinatzeko aukera, horrela saria bere euskal artista berrien sustapenerako ekimen bihurtuko delarik. Modu horretan belaunaldien arteko zubi lana eraikiaz.
8. Batzordea izango da artista eta honen obra aukeratzeko duena.
9. Euskal artista berriak bere obraren berri batzordeko kideei emateko Olaso Dorrea Fundaziora zuzendu beharko dira, saria eman aurreko urteko abenduaren 31a baino lehen.
10. Obra artistikoa ordaindua izango da, orotara, 3.500 euroko diru kopuruarekin.
11. Sari ematea Bergarako herrian burutuko da.

Egun Fundazio/Udal batzordea honakook osatzen dute:

Begarako alkatea, Bergarako kultur zinegotzia, ODFko Lehendakaria Iratxe Esnaola eta Patronatuko kide Irati Jimenez eta Maite Aristegi.

Horretaz gain Saria den obra artistikoa aukeratzeko batzorde bat osatu da, ondorengo adituekin:

- Karlos Galarraga (Begarako Beart arte elkartearen kidea)
- Jesus Mari Lazkano (margolaria)
- Mikel Lertxundi (arte historialaria eta komisarioa)



2021 SARIA:

Libe Goñi Garate (Oteitza, 1947)

Libe Goñi Garate Oteitzan (Nafarroa) jaio zen 1947ko ekainaren 7an, bere ama, Miren, aitaren herrira joan baitzen erditzera, Zaragozako Villeba herritik. Ama irakaslea zen Orbaizetan, 1936ko gerra aurretik. Gerra ostean, frankistek zigortu egin zuten, eta Zaragozako (Espainia) Villabella herrira erbesteratu. Libek hiru urte zituela, gerrako zigorra pasatu zenean, amari Gipuzkoan herri bat hautatzeko zenbait aukera eman zioten irakasle gisa jarduteko, eta Lazkaora joan ziren bizitzera.

1962an, Donostiako Irakasleen Unibertsitate Eskolan hasi zen magisteritza ikasten. Bere gogoia herriaren eta euskararen alde zerbait egitea zenez, ikasketak amaitu ostean, irakasle praktikak egiten hasi zen Elbira Zipitriaren ikastolan, eta, batez ere, Karmele Esnalenean. Handik, Andoingo ikastolako zuzendari lana betetzera joan zen. Baina, 1969ko otsailean, Guardia Zibila azaldu zen Lazkaon eta Iruñean bere bila, eta Ipar Euskal Herrira ihes egin behar izan zuen, Luzaidetik barrena.

Iparraldean irakasle lanetan murgilduko den lehen andereñoa izan zen, lehenengo Argitxu Nobliaren etxean, Villa Espinalen, bost haurrekin; ondoren Enbataren bulegoan, Cordeliers karrikan, eta azkenik, Arrangoitzeko ikastolan, 1970ean. Ondoren, Baionako ikastolara joan zen 1980an; Angelun egin zituen azken irakasle urteak, 2001etik 2007ra bitartekoak.

Ihesera bultzatu zuten horiek utzi zuten oraindik ere orbain irekirik Libe Goñi Garateren bizitzan. 1985ean, bere lehengusu Mikel Zabaltza, Guardia Zibilak beste lehengusu batzuekin batera atxilotu ondoren, desagerrarazi zuten, eta, ostean, Bidasoako ibaian azaldu zen hilik. Zauria itxi gabe dago.

Ikastolako bultzatzaile eta andereño aitzindaria izateaz gain, Libe Goñi Garate lan asko egindakoa da kultura arloan, bai irakaskuntzan, baita euskal ohituren suspertzaile gisa ere, bereziki ikastolen bidez, besteak beste, Olentzeroren ohitura Iparralden gizarteratzen lagundu baitzuen. Bere bizitza profesional osoa ikastolen zerbitzura eman du erretiroa hartu arte.


Libe Goñi Garate Euskal Herriak eta euskarak XX. mendearen bigarren erdialdetik gaurdaino izan duen berpizkunde eta biziraute borrokaren adierazle bizia dugu.



SARI EMAILEA:

Zalóa Ipiña Bidaurrezaga (Bilbo, 1986) artista plastiko euskalduna da. Euskal Herriko Unibertsitatean lizentziatu zen Arte Ederretan 2009an eta Masterra egin du lan grafiko garaikideetan, CIEC fundazioan, Galizian. Egonaldiak egin ditu Bartzelonako Piramidon eta BilbaoArten.

Arte plastikoetan espresabide desberdinak erabiltzen ditu Ipiñak: instalazioak, adibidez, non argazkiak, eskulturak, bideoak eta inpresio digitalak erabili izan ditu.



"Amnesia kolektiboa" artelana.
 Monzon/Ganuz 1. sariaren oparia (2021. urtea).
 Egilea: Zalao Ipiñá.
 Arte lanaren erreproduzio- eskubideak Olaso Dorrea Fundazioarenak dira.



2.2. Bisita Gidatuak

Olaso Dorrea Fundazioaren asmoa da bere ondarea ezagutzera ematea, dorretxea Bergararrei eta bisitariari irekiaz, eta horrela, Telesforo Monzonen nahiari erantzunaz. Bergarako Udalak turismoa eta kultura herrian bultzatzeko duen asmoarekin bat egiten duen egitasmoa da hau, herri honek duen ondarea ahal den heinean erakusgai jarriaz eta bisitatzeko aukera eskainiz.

Horri jarraikiz, Laboratorium museoa ikusteko aukerarekin batera Olaso Dorretxean bisita gidatua ere egiteko aukera ireki da 2021 urtean.

Hilean hiru bisita antolatzen dira (2 euskaraz eta 1 gazteleraz), 2021eko Martxoaren 13tik aurrera. Iraupena ordu t'erdi ingurukoa da eta taldeak gehienez 12 pertsonakoak izango dira (nahiz eta COVID19 dela eta murriztu egin diren).

Urtea amaitzerako 275 bisitari inguru pasa izatea espero da, bisita egun guztiak beteak daudelarik.

Bisitari begira zenbait atontze egin behar izan dira etxean, bai segurtasun aldetik bai eta irisgarritasun aldetik ere. Asegurua ere egokitu egin da, bai eta zaintza. Dorrea irekitzeak harrera ezin hobea izan du.



Bergara turismo:

<http://www.bergaraturismo.eus/eu/bisita-gidatuak-0>

<https://www.bergaraturismo.eus/eu/laboratorium-olaso-dorrea>

<http://www.bergara.eus/es/node/15327>

<https://www.turismodebagoiena.eus/wp-content/uploads/2021/07/uda-2021verano.pdf>

Prensa:



<https://goiena.eus/bergara/1615619460886-olaso-dorrera-bisita>

https://www.naiz.eus/eu/hemeroteca/gara/editions/2021-02-16/hemeroteca_articles/olaso-dorrea-fundazioak-webgunea-eta-ekimen-berriakaurkeztu-ditu

<https://www.noticiasdegipuzkoa.eus/gipuzkoa/debagoiena/2021/02/16/torre-olasoabre-visitantes/1089705.html>

2.3. Hitzaldi/aukezpenak:

LIBURU AURKEZPENA



SOLASALDIA

**Jose Luis Elkoro
Mikel Zubimendi**




Martxoaren 16an, 18:30ean
Bergarako OLASO DORREAN

* COVID-19a DELA ETA AFORO MUGATUA
Izen ematea: 638 12 16 75
Astelehenetik ostiralera 09:00tik 14:00ra



LIBURU AURKEZPENA



SOLASALDIA

**Mikel Albisu Iriarte
Urko Aiartza Azurtza**



Maiatzaren 5ean, 18:30ean
Bergarako OLASO DORREAN

* COVID-19a DELA ETA AFORO MUGATUA
Izen ematea: 638 12 16 75
Astelehenetik ostiralera 09:00tik 14:00ra

LIBURU AURKEZPENA



SOLASALDIA

**Jokin Urain Larrañaga
Ane Miren Alberdi Zuberrementeria**

Garai ilunetan independentziaren alde zapalkuntzari aurre egin zion gazte belaraldi baten ekinzaile eta buruzagi karismatikoenetako baten bizitza.

Izaera, klandestinitatea, jazarpena, deportazioa, elkarrizketak, heriotza Aljerian... lekuko zuzenen testigantzekin kontatua.



Abenduaren 14ean, 19:00etan
Bergaran, "Seminarixua"n

2. 4 Telesforo Monzon eLab, Euskal Herrigintza Laborategiaren jardunbidea .

Olaso Dorrea laborategiaren hainbat ekimen burutzeko erabili da.



2.5 GIZABIDEAREN jardunaldiak

Olaso Dorrea Fundazioa eta Gizabidea Fundazioaren arteko hitzarmenari eutsiz, areto nagusian zenbait bilera egin dira urtean zehar.




2.7. JAKIUNDEn jarduna

JAKIUNDE Akademiarekin sinatutako hitzarmenari jarraikiz, urtero lez, Bergaran 2019ko azaroaren 8an plenaria egin zuten JAKIUNDEkoek. Fundaziotik zerbitzua eskaini zitzaien eta bileraren antolaketak eskatzen zituen gastuei aurre egin zaie. Horretaz gain, JAKIUNDEren egoitza urte osoan zehar mantenu eta zaindu du Olaso Dorrea Fundazioak, bulegoen eta azpiegituraren mantenua barne sartzen delarik, baita igogailua, telefonoa zein argindarraren ordainketa.

2.8 Argazki fondoaren osaketa eta digitalizazioa

Ia zazpi milako argazki fondoari dagokionez, jarraitzen da data basean argazkien informazioa sartzen. Horretarako, lehenik eta behin argazkian bertan begiratzen dugu, ea idatzizko daturen bat agertzen den. Oso gutxitan agertzen da hau, beraz, interneten begiratuta, Olaso Dorrean diren zenbait argitalpenetik (Enbata, Punto y Hora, etab.) eta Monzon familiarekin lotura izan zuten hainbat lagunekin alderatuz egiten ari gara lan hau.



Zailtasunak zailtasun, sortzen ari garen data basea osatua da eta etorkizunean kontsulta publikorako tresna baliotsua izango da.

2.9 Artxiboen kudeaketa

Artxibora kontsultak egitera etorri diren ikerlariei arreta eman. Olaso Dorrean kokatuta dagoen artxibategi historikoan kontsulta egiteko eskaerak gero eta maizago ematen dira, eta dedikazio garrantzitsua eskatzen dute. Izan ere, artxibategian bertan ezin dute bisitek “eskua sartu”. Artxibategiko dokumentuen zerrenda eskaintzen zaio bisitariari eta honek interesatzen zaizkion dokumentuak identifikatuta, Olaso Dorreko langileak artxibategitik atera eta kontsultarako uzten dizkio. Horretarako, eta era duinean lan egin ahal izan dezan, ikerlariari bulego bat eskaintzen zaio. Era honetan artxibategiko dokumentazio guztia kontrolpean dagoela eta modu egokian zaintzen dela ziurtatu dezakegu.

Bisita fisikoez gain, ugari izan dira Olaso Dorrea Fundazioaren jabegopean baina Euskaltzaindiak gordailuan duen Lacombe fondoaren bildumako lanen kontsulta eskatzen dute ikertzaileak. Kontsulta eskaera guzti hauek Euskaltzaindiako langile batek jasotzen ditu eta Olaso Dorrea Fundazioari baimen eskaera luzatzen dio. Normalean ez da arazorik izaten eta baimenak onesten ditu Fundazioko Lehendakariak. Erabiltzaile nagusiak Euskal Herriko ikertzaileak dira, bereiziki historialari eta filologoak, horietako batzuk euskaltzainak eta hainbat unibertsitateko irakasleak (Euskal Herriko Unibertsitatea, Nafarroako Unibertsitate Publikoa eta Deustuko Unibertsitatea). Bada bestelakorik ere adibidez, euskal idazleak.



Artxibora kontsultak egitera etortzen direnei, eskaintzen zaien bulegoa.

2.10 Liburutegiak

Bi dira Fundazioak dituen Liburutegiak. Gaur egun Euskaltzaindiak gordailuan duena, **1.930** liburuekin osatzen dena: Fondo G. Lacombe liburutegia Eta


Monzon-Ganuz a liburutegia azken hau 2.215 liburukin osatuta. Azken liburutegi hau XVI mendetik XX mendearen hasiera arte inbentariatuta egon arren, XX mendeko azken hamarkadak falta dira, eta lan hau da, epe motzean proiektatua duguna.



Momentu honetan Monzon-Ganuz a liburutegia osoagoa egin nahian, Dorrean kutxetan gordeta ziren XX mendeko izenburu ezberdineko aldizkariak bilduma atotnzeari ekin diogu. Jada batzuk sailkatzen hasiak gara.

2.11. Ekarpak berriak

Olaso Dorrearen artxibategiak bi ekarpak jaso ditu berriki. Bergarako Antonio Iturbe argazkilariak Telesforo Monzonen hileta eguneko argazkiak eskaini dizkio fundazioari.



Bestetik, **Paulo Agirrebaltzategi** frantziskotarrak artxiboaren aldizkari atala osatzeko hainbat bilduma eskaini dizkio Fundazioari, hala nola Punto y Hora, Argia, Zutik eta beste aldizkarien bilduma osoak.

Azkenik **Libe Goñi** 2021eko Monzon-Ganuzar saridunak, bere ikastolako abesti kaira eskeini digu dohantzan.